

*Gareseko Done Jakue elizaren portada
Iturria: Nafarroako Turismoa
Egilea: Francis Vaquero*

M_{LH4}

2021-2022

Zuzenketa-koaderno

Izen-abizenak:

Ikastetxea:

Ikastaldea/Ikaskela:

Herria:

Data:

Matematika Gaitasuna

LHko 4. maila



Jarraibideak

Lehenik, buruzko **kalkulu ariketa bat** egingo duzu. Horretarako, irakasleak ozenki irakurriko ditu eragiketak eta buruketak.

Ondoren, Tafallako eskualdeari eta patinetei buruzko **hainbat galdera** aurkituko dituzu. Batzuek lau aukera dituzte erantzuteko; hauetan, aukera zuzen bakarra hautatu beharko duzu, eta borobil batekin inguratu haren ondoan dagoen letra. Esate baterako:

Zenbat da $2 + 5$?

- A. 2
- B. 6
- C. 7
- D. 11

Erantzuna aldatzea erabakitzen baduzu, ezabatu **X** batekin zure lehenbiziko aukera eta inguratu borobil batekin erantzun zuzen berria, adibidean agertzen den bezala:

Zenbat da $2 + 5$?

- A. 2
- B. 6
- C. 7
- D. 11

Eragiketak idatzi beharko dituzu soil-soilik hala egiteko esaten dizuten galderetan. Galdera horietan hau bezalako lauki bat ageri da:

Eragiketak:

Beste galdera batzuetan eskatuko dizute erantzuna idazteko puntuekin seinalatzen den tartean:

Idatzi zenbat angelu eta zenbat alde dituen triangeluak.....



Proba hau egiteko 60 minutu dituzu.

1. BURUZKO KALKULU ARIKETA:

- Irakasleak ozenki 3 eragiketa eta 3 buruketa irakurriko ditu.
- Hiru aldiz jarraian errepikatuko ditu eta eten txiki bat egingo du errepikapen bakoitzaren ondoren.
- Paperean ezin duzu eragiketarik egin; buruz egin behar dituzu.
- Idatzi emaitza zifrekin honako taula honetan:

A eragiketa	14
B eragiketa	46
C eragiketa	17
D problema27..... hegazti.
E problema650..... pertsonak ordaindu dute sarrera.
F problema60..... kilo mahats.

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0 – 3	0,5 erantzun zuzen bakoitzeko.

1. galderaren analisia	
Edukiak	Zenbakiak
Prozesu ebaluatuta	Aztertzea eta aplikatzea
Puntuaziorik handiena	3
Galderaren zailtasun maila	Normala
Galdera mota	Irekia

Tafallako eskualdea

Tafallako eskualdean zenbait herritara joan gaitzke bisitan, esaterako Tafallara, Uxuera, Artaxoara... Era berean, bisita ditzakegu Erriberriko gaztelua, Pitillasko aintzira...



2. XIV. mendean (hamalagarren mendean) Erriberriko gaztelua eraikitzen bukatu zuten eta gaur egun XXI. mendean (hogeita batgarren mendean) gaude. Zenbat urte ditu gazteluak?




- A. 140 urte inguru.
- B. 210 urte inguru.
- C. 700 urte inguru.
- D. 1 400 urte inguru.

2. galderaren analisia	
Edukiak	Neurriak
Prozesu ebaluatuta	Ezagutzea eta erreproduzitzea
Puntuaziorik handiena	1
Galderaren zailtasun maila	Oso erraza
Galdera mota	Itxia

3. Begira ezazu irudiko piramidea eta osatu taula.

	Egia	Gezurra
6 aurpegi ditu.		X
5 erpin ditu.	X	
8 ertz ditu.	X	
Alboko aurpegiak triangeluak dira.	X	



Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	0, 1 edo 2 erantzun zuzen.
1	3 erantzun zuzen.
2	4 erantzun zuzenak: G-E-E-E.

3. galderaren analisisa	
Edukiak	<i>Geometria</i>
Prozesu ebaluatuta	<i>Aztertzea eta aplikatzea</i>
Puntuaziorik handiena	<i>1</i>
Galderaren zailtasun maila	<i>Erraza</i>
Galdera mota	<i>Itxia</i>

4. Zenbait lagun gaztelura bisitan joan dira. Sarreran prezioen taula hau aurkitu dute:

	Prezioa
Helduak	4 €
Neska-mutilak (6 urtetik 13 urtera bitartekoak)	2 €
Neska-mutilak (0tik 5 urtera bitartekoak)	0 €
65 urtetik gorakoak	3 €

Taldean badira:

- 12 heldu
- zortzi eta hamabi urte bitarteko 15 neska
- bi urteko 3 mutil
- hirurogeita hamar urteko 6 lagun

Zenbat ordaindu dute sarrera guztiengatik?

Idatz ezazu eragiketa edo eragiketak, eta soluzioa.

Egin beharreko kalkuluak. *Hainbat metodo baliozko, adibidez:*

$$12 \times 4 = 48 \text{ €}$$

$$15 \times 2 = 30 \text{ €}$$

$$6 \times 3 = 18 \text{ €}$$

$$48 + 30 + 18 = 96 \text{ €}$$

Sarrera guztiak ordaintzeko **...96...** euro erabili dituzte.

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Planteamendu okerra edo osatu gabea. 0 puntu emanen dira, orobat, ikasleak soluzio bat idazten badu (zuzena izan arren), baina ez eragiketa.
1	Planteamendua zuzen egin du, baina kalkuluetan hutsegite bat egin du.
2	Planteamendua zuzen egin du eta azken soluzio zuzena eman du.

4. galderaren analisia	
Edukiak	Zenbakiak
Prozesu ebaluatuta	Aztertzea eta aplikatzea
Puntuaziorik handiena	2
Galderaren zailtasun maila	Normala
Galdera mota	Irekia

5. Begira ezazu Erriberriko gazteluaren irudia. Zer gorputz geometriko ikusten dira irudian?

- A. Konoa, piramidea eta esfera.
- B. Konoa, zilindroa eta esfera.
- C. Konoa, piramidea eta zilindroa.
- D. Konoa, prisma eta esfera.



5. galderaren analisia	
Edukiak	Geometria
Prozesu ebaluatuta	Ezagutzea eta erreproduzitzea
Puntuaziorik handiena	1
Galderaren zailtasun maila	Oso erraza
Galdera mota	Itxia

6. Gazteluaren dorre batetik sarrerako atea ikusten dugu. Oraingo murrizketak direla eta, gaztelura sartu nahi duten pertsonak ilaran egon beharko dute elkarren artean bi metroko tartea utziz. Ilarak guztira 158 metro neurtzen baditu, zenbat persona daude sartzeko zain?

Idatz ezazu eragiketa edo eragiketak, eta soluzioa.

Egin beharreko kalkuluak. *Bi metodo baliozko:*

1. aukera: $158 : 2 = 79$ pertsona

2. aukera:

$158 : 2 = 79$

$79 + 1 = 80$ pertsona

Guztira.....**79/80**..... pertsona daude ilaran.

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Planteamendu okerra edo osatu gabea. 0 puntu emanen dira, orobat, ikasleak soluzio bat idazten badu (zuzena izan arren), baina ez eragiketa.
1	<u>Planteamendua</u> zuzen egin du eta <u>azken soluzio zuzena</u> eman du. Bi emaitzak balekoak dira: 79 edo 80 .


6. galderaren analisia	
Edukiak	Zenbakiak
Prozesu ebaluatuta	Aztertzea eta aplikatzea
Puntuaziorik handiena	1
Galderaren zailtasun maila	Normala
Galdera mota	Irekia

7. Matematika klasean, irakasleak mahats-mordoan gaineko marrazkiak erakutsi ditu.


Hurrengo marrazki hauen artean, zeinetan da simetria-ardatza lerro gorria?

- A. A marrazkian.
- B. B marrazkian.
- C. C marrazkian.
- D. D marrazkian.


A marrazkia




B marrazkia



C marrazkia



D marrazkia



7. galderaren analisia

Edukiak	Geometria
Prozesu ebaluatuta	Aztertzea eta aplikatzea
Puntuaziorik handiena	1
Galderaren zailtasun maila	Oso erraza
Galdera mota	Itxia

8. Markos eta bere familiakoak Uxueko landetxe batera joan dira. Artzain-apurrak prestatuko dituzte errezeta honi jarraiki:

ARTZAIN-APURREN ERREZETA

4 lagunendako osagaiak

- 400 g ogi
- 100 ml ur
- 150 g hirugihar
- 80 ml olio
- 5 baratxuri ale

20 lagun badira, zenbat mililitro olio beharko dituzte?

Egin beharreko kalkuluak. *Aukera baliozkoak:*

- $20 : 4 = 5$ $80 \times 5 = 400$ ml
- $80 : 4 = 20$ $20 \times 20 = 400$ ml
- $80 + 80 + 80 + 80 + 80 = 400$ ml

20 lagunentzat ...**400**... ml olio beharko dira.

Beraz, nahikoa izango da litro erdi oliorekin? ...**Bai**...

Arrazoitu erantzuna: ...**“Litro erdi olio / 500 ml 400 ml baino gehiago da” / “Litro erdi oliorekin 100 ml soberan ditugu”**...

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	20 pertsonarentzako apurrak prestatzeko behar diren olio mililitroak ez ditu ongi kalkulatu.
1	20 pertsonarentzako apurrak prestatzeko behar diren olio mililitroak ongi kalkulatu ditu, baina ez du erantzun edo erantzun du ez dela nahikoa litro erdi oliorekin.
1,5	20 pertsonarentzako apurrak prestatzeko behar diren olio mililitroak ongi kalkulatu ditu eta litro erdi oliorekin nahikoa dela erantzun du, baina ez du arrazoitu edo ez du ongi arrazoitu.
2	20 pertsonarentzako apurrak prestatzeko behar diren olio mililitroak ongi kalkulatu ditu. Litro erdi oliorekin nahikoa dela erantzun du eta ongi arrazoitu du (<i>“Litro erdi olio/500 ml 400 ml baino gehiago da”, “Litro erdi oliorekin 100 ml soberan ditugu”,...</i>).

8. galderaren analisia

Edukiak	<i>Neurriak</i>
Prozesu ebaluatuta	<i>Arrazoitzea eta hausnartzea</i>
Puntuaziorik handiena	<i>2</i>
Galderaren zailtasun maila	<i>Zaila</i>
Galdera mota	<i>Irekia</i>

9. Markosek 140 almendra garrapiñatu dituen pote bat ireki du.

Almendren $\frac{2}{5}$ jan dituzte.

Zenbat almendra jan dituzte?

Idatz ezazu eragiketa edo eragiketak, eta soluzioa.



Egin beharreko kalkuluak. *Hainbat metodo baliozko, adibidez:*

$$140 : 5 = 28$$

$$28 \times 2 = 56 \text{ almendra}$$


.....**56**..... almendra jan dituzte.

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Planteamendu okerra edo osatu gabea. 0 puntu emanen dira, orobat, ikasleak soluzio bat idazten badu (zuzena izan arren), baina ez eragiketa.
1	Planteamendua zuzen egin du eta azken soluzio zuzena eman du.

9. galderaren analisia	
Edukiak	Zenbakiak
Prozesu ebaluatuta	Aztertzea eta aplikatzea
Puntuaziorik handiena	1
Galderaren zailtasun maila	Normala
Galdera mota	Irekia

10. Markosek argazkiak egin dizkie Uxueko etxe batzuei.

Beha ezazu, eskuinaldean, argazkian seinalatutako leihoaren marrazkia.



Leihoak bi kristal berdin ditu.

Kalkula ezazu leihoaren markoaren perimetroa eta hauta ezazu aukera zuzena.

- A. 170 zentimetro baino pixkat gehiago.
- B. 340 zentimetro baino pixkat gehiago.
- C. 380 zentimetro baino pixkat gehiago.
- D. 480 zentimetro baino pixkat gehiago.

10. galderaren analisia	
Edukiak	Zenbakiak
Prozesu ebaluatuta	Ezagutzea eta erreproduzitzea
Puntuaziorik handiena	1
Galderaren zailtasun maila	Zaila
Galdera mota	Itxia

11. Markos eta gurasoak Tafallara joan dira.

Begira ezazu irudian Tafallako udaletxeko erlojua.



Idatz ezazu ordu hori Markosen erloju digitalean.



Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzun okerra.
1	13:34 edo 13:35.

11. galderaren analisia

Edukiak	Neurriak
Prozesu ebaluatuta	Ezagutzea eta erreproduzitzea
Puntuaziorik handiena	1
Galderaren zailtasun maila	Erraza
Galdera mota	Irekia

12. Begira ezazu Markosek Tafallako denda bateko horman ikusi duen irudia.



Markosek gorritz idatzitako zenbakiko 12 digituen batuketa egin du. Zenbatu itzazu eta idatzi emaitza.

Batuketaren emaitza61..... da.

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzun okerra.
1	Ongi idatzi badu 61.

12. galderaren analisia

Edukiak	Zenbakiak
Prozesu ebaluatuta	Azttertzea eta aplikatzea
Puntuaziorik handiena	1
Galderaren zailtasun maila	Erraza
Galdera mota	Irekia

13. Arratsalde, Markos eta gurasoak Artaxoara joan dira, bisitan.

2020. urtean Artaxoak zenbat biztanle zituen jakiteko, ondorengo pista hauek jarraitu behar dituzu:

- Lau zifrako zenbaki bat da.
- Zifra guztien batura hamazazpi da.
- Hamarrekoen zifra ehunekoen zifra baino handiagoa da.
- Ehunekoen zifra bikoitia da.



Idatz ezazu laukitxo bakoitzean dagokion zifra.

1	6	9	1	biztanle zituen.
---	---	---	---	------------------

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzun okerra edo osatu gabea.
1	Erantzun zuzena: 1691 .

13. galderaren analisia	
Edukiak	Zenbakiak
Prozesu ebaluatuta	Aztertzea eta aplikatzea
Puntuaziorik handiena	1
Galderaren zailtasun maila	Zaila
Galdera mota	Irekia

14. Artaxoako emakume batek Markosi esan dio eguzkia 06:58an atera dela eta 21:12an sartuko dela. Eguzkia zenbat orduz ikusiko dugu gaur?

- A. 14 ordu eta 12 minutuz.
- B. 14 ordu eta 14 minutuz.
- C. 14 ordu eta 36 minutuz.
- D. 14 ordu eta 58 minutuz.



14. galderaren analisia	
Edukiak	Neurriak
Prozesu ebaluatuta	Aztertzea eta aplikatzea
Puntuaziorik handiena	1
Galderaren zailtasun maila	Normala
Galdera mota	Itxia

15. Markos eta bere ama denda batean sartu dira askaltzeko zerbait erostera. 20 euroko billete batekin ordaindu dute.

Begira ezazu irudian zenbat txanpon itzuli dizkieten.

Zenbat euro ordaindu dute erosketagatik?

Idatz ezazu eragiketa edo eragiketak, eta soluzioa.



Egin beharreko kalkuluak. Hainbat metodo baliozko, adibidez:

$$2 + 2 + 1 + 1 + 0,50 + 0,20 + 0,10 + 0,05 = 6,85 \text{ €}$$


$$22 - 6,85 = 13,15 \text{ €}$$

.....**13**..... euro eta ...**15**..... zentimo ordaindu dute.

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Planteamendu okerra edo osatu gabea. 0 puntu emanen dira, orobat, ikasleak soluzio bat idazten badu (zuzena izan arren), baina ez eragiketa.
1	Planteamendua zuzen egin du eta azken soluzio zuzena eman du. (Norbaitek 13,15 euro erantzuten badu ere, ontzat emanen da).

15. galderaren analisia	
Edukiak	Neurriak
Prozesu ebaluatuta	Aztertzea eta aplikatzea
Puntuaziorik handiena	1
Galderaren zailtasun maila	Normala
Galdera mota	Irekia

16. Uxue, Markosen lehengusina, Pitillasko aintzirara joan da bere familiarekin. Begira ezazu aintzirako animalien gaineko grafikoa.



Osa ezazu taula animalia kopuruarekin.

Ugaztunak	Hegaztiak	Narrastiak	Anfibioak	Intsektuak
30	55	25	10	35


Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	0, 1, 2 edo 3 erantzun zuzen.
1	4 erantzun zuzen.
2	5 erantzun zuzen.

16. galderaren analisia	
Edukiak	<i>Estatistika eta probabilitatea</i>
Prozesu ebaluatuta	<i>Aztertzea eta aplikatzea</i>
Puntuaziorik handiena	2
Galderaren zailtasun maila	<i>Normala</i>
Galdera mota	<i>Irekia</i>

17. Pitillasko aintziratik haize-parke bat ikusten da. Hari begira dago Uxue.



Begira itzazu hurrengo irudian haize-sorgailuaren hegala.



Nolakoak dira hiru hegalen arteko angeluak?

- A. Hiru angeluak zorrotzak dira.
- B. Bi angelu zorrotz eta angelu zuzen bat.
- C. Bi angelu kamuts eta angelu zuzen bat.
- D. **Hiru angeluak kamutsak dira.**

17. galderaren analisisa	
Edukiak	<i>Geometria</i>
Prozesu ebaluatuta	<i>Ezagutzea eta erreproduzitzea</i>
Puntuaziorik handiena	<i>1</i>
Galderaren zailtasun maila	<i>Oso erraza</i>
Galdera mota	<i>Itxia</i>

Patineteak

Neska-mutil askok patinetea dute eta harekin ateratzen dira jolasera kaleetan, plazetan, pistetan...



18. Begira itzazu patinetearen irudian dauden neurriak. Aitorrek ordenatu ditu neurri horiek, txikienetik handienara.



Aukera ezazu erantzun zuzena.

- A. $48 \text{ cm} < 94 \text{ cm} < 380 \text{ mm} < 760 \text{ mm}$.
- B. $48 \text{ cm} < 380 \text{ mm} < 94 \text{ cm} < 760 \text{ mm}$.
- C. $380 \text{ mm} < 760 \text{ mm} < 48 \text{ cm} < 94 \text{ cm}$.
- D. $380 \text{ mm} < 48 \text{ cm} < 760 \text{ mm} < 94 \text{ cm}$.

18. galderaren analisisa

Edukiak	Neurriak
Prozesu ebaluatuta	Aztertzea eta aplikatzea
Puntuaziorik handiena	1
Galderaren zailtasun maila	Erraza
Galdera mota	Itxia

19. Aitorren aitona-amonek 4 patinete berdin erosi dizkiete biloba helduei. Biloba txikiarentzat 69 € balio duen triziklo bat ere erosi dute. Guztira, 737 € ordaindu dituzte. Zenbat balio du patinete bakoitzak?



Idatz ezazu eragiketa edo eragiketak, eta soluzioa.

Egin beharreko kalkuluak. Hainbat metodo baliozko, adibidez:

$$737 - 69 = 668$$

$$668 : 4 = 167 \text{ €}$$

Patinete bakoitzak**167**..... euro balio du.

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Planteamendu okerra edo osatu gabea. 0 puntu emanen dira, orobat, ikasleak soluzio bat idazten badu (zuzena izan arren), baina ez eragiketa.
1	Planteamendua zuzen egin du, baina kalkuluetan hutsegite bat egin du.
2	Planteamendua zuzen egin du eta azken soluzio zuzena eman du.

19. galderaren analisia	
Edukiak	Zenbakiak
Prozesu ebaluatuta	Aztertzea eta aplikatzea
Puntuaziorik handiena	2
Galderaren zailtasun maila	Normala
Galdera mota	Irekia


20. Laukizuzen forma duen pista batean jolasten du Aitorrek patinetearekin. Zabaleran 20 metro neurtzen ditu eta luzeran 40 metro. Pista erdia berdez margotu behar dute. Zer forma izan dezake margotutako zatiak? Behar baduzu, marrazkiaz balia zaitezke erantzuteko.

- A. Karratuaren forma.
- B. Laukizuzenaren forma.
- C. Hirukiaren forma.
- D. **Aurreko hiru formak.**



20. galderaren analisia	
Edukiak	<i>Geometria</i>
Prozesu ebaluatuta	<i>Aztertzea eta aplikatzea</i>
Puntuaziorik handiena	<i>1</i>
Galderaren zailtasun maila	<i>Normala</i>
Galdera mota	<i>Itxia</i>

21. Begira ezazu Aitorrek marraztu duen ondorengo taula.







Zein dira bi patineteen koordenatuak?


- A. **(E , 2) y (C , 5).**
- B. (E , 2) y (5 , C).
- C. (2, E) y (C , 5).
- D. (2, E) y (5 , C).

21. galderaren analisia	
Edukiak	<i>Geometria</i>
Prozesu ebaluatuta	<i>Aztertzea eta aplikatzea</i>
Puntuaziorik handiena	<i>1</i>
Galderaren zailtasun maila	<i>Zaila</i>
Galdera mota	<i>Itxia</i>

22. Aitor eta lagunak patinete batzuen prezioei begira daude.

				
Patinetea	A	B	C	D
Pisua	8 kg	12 kg	7 kg	9 kg
Prezioa	170 €	70 €	140 €	110 €
Altuera	70 cm	110 cm	90 cm	80 cm

Egin ezazu hurrengo barra-grafikoa patinete bakoitzaren prezioa kontuan hartuz.



Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzun okerra edo osatu gabea.
1	Barra guztiak zuzen marraztu ditu, dagokien luzera emanaz.

22. galderaren analisia	
Edukiak	<i>Estatistika eta probabilitatea</i>
Prozesu ebaluatuta	<i>Aztertzea eta aplikatzea</i>
Puntuaziorik handiena	<i>1</i>
Galderaren zailtasun maila	<i>Oso erraza</i>
Galdera mota	<i>Irekia</i>

23. Enpresa batean 24 735 patinete egin dituzte. Egindako patineteetan zenbat ehuneko daude?

- A. 24 ehuneko.
- B. 247 ehuneko.
- C. 2 470 ehuneko.
- D. 24 700 ehuneko.

23. galderaren analisisa	
Edukiak	<i>Zenbakiak</i>
Prozesu ebaluatuta	<i>Ezagutzea eta erreproduzitzea</i>
Puntuaziorik handiena	<i>1</i>
Galderaren zailtasun maila	<i>Erraza</i>
Galdera mota	<i>Itxia</i>